

Txantxangorriren Historia

Denontzat oso ezaguna da Txantxangorriren historia, batzuk Hernaniko Kirol Elkarteko atal bezala hasi zenetik ezagutuko duzue, besteak orain dela gutxitik. Idatzi honetan, urte hauetan kronologikoki gertatutakoaren, alde esanguratsuenak azpimarratu nahi litzake.

Seguru aski, bakoitzak geure buruan ditugun gauza asko baztertuko dira, batzuetan ez delako idatzita agertzen eta besteetan leku arazoak direla eta ezin direlako sartu idatzian. Honek ez du Elkartearen bilakaeraren adierazgarri zehatza izan nahi, baizik eta Txantxangorri garai bakoitzean gertatutakoaren islada izan nahi du, horretarako alde batetik eta bestetik Txantxangorri osatzen dugun familia honek izan dituen oroigarri batzuk atera ditugu tartetik.

1946 urtean hasi ginen, abuztuaren 20an zehazki; C.D.H.ko kideekin izandako bilera baten ondoren arautegiak jartzen dira eta C.D.H.ko Arrantza eta Ehiza Atala osatzen da, atal honek urteko peseta bateko kanona ordaindu behar du. Hileko, bazkide bakoitzak 2 pezetako kuota ordaindu beharko du.

Gobernu batzorde bat ere osatzen da, Jaun hauekin: Manuel Aspiazu, Ceferino Loyarte, Manuel Orayen, Gabriel Elizondo eta auzoetako ordezkari bezala: Leandro Irazusta, Jose Antonio San Sebastián, Jose Olanan eta Luis Kamio Jaunak izan ziren.

Ataleko Lehendakaria, C.D.H.koa den, Jose Adarraga Jauna da.

1947 urtean bere iharduerekin jarraitu zuen atal honek, urte honetako uztailaren 13an egin zen Ataleko lehenengo Batzar Orokorra; urte honetan egin ziren, baita ere, lehenengo Plater Tiraketak.

C.D.H.ko Ehiza eta Arrantza Atalari **1948ko** uztailaren 18an Txantxangorri izena jartzea adostu zen, bide batez Bazkideek entseina bat diseinatzeko eskatu zioten Gobernu Batzordeari.

Garai honetan azpimarratzeko modukoa da, nola Plater Tiraketetan hustutako kartutxoak Batzarrerara joaten zirenen artean banatzen ziren gero berriz betetzeko.

Garai honetan hasi ziren baita hildako bazkideen alde urteroko meza ateratzen, ohitura honek orain duela gutxi arte iraun du.

Urte hauetan Ataleko bilerak Hernaniko Kirol Elkarteko Lokal Sozialean egiten ziren.

1949ko uztailean ospatutako Batzar Orokorrean hartu ziren akordioak zirela eta, Ataleko araudiak berrikusi ondoren Lehendakariorde kargua sortzen da, eta bere egin beharrak arautu.

Urte honetan soldadutza egitera joan behar duten gazteei urteko kuota salbuetsi zaie; Gobernu Batzorde berri bat ere sortzen da Tiburcio Agirre Jauna Lehendakari duelarik.

Garai honetan aldaketak datozte Txantxangorrira, pixkanaka Kirol Elkartetik Ehiza eta Arrantza Atala bereiztera eramango duen bide berri bat hartuz.

Orduko Kudeaketa Batzordeak Santa Barbara Elkartearen lokaletan eginten zituen bilerak.

Urte honetan bazkide ehiztari bakoitzari 2 kilo perdigoi ematea erabakitzen da. Prezioa 16 pezeta/kiloko, suposatzen dugu orain hainbesteko aukera ez zela izango kartutxera prestatzeko garaian.

Bai eper bai amuarrainkume birpopulaketa egitea ikertzen da; Atala C.D.H.ko Bazkide Industrialak egitea erabakitzen da 50 pezetako kuota ordainduz eta Txantxilako zelaia Plater Tiraketako erabiltzea.

1950 urtean Ereñozu Bailarako Urmia Elkartekoekin harremanak sendoagotzen dira Urumea ibaia izokin arrantzarako berreskuratzeko, bide batez amuarrainkumez birpopulatuz eta arrantzaleei beraien laguntza eskatuz isurkin kaltegarriak ekiditzeko, Rafael Piera Bayona Jauna Ataleko Lehendakari aukeratzen da.

1951 urtean Txantxangorriko kideak Zinema Aretoan bildu ziren, hemen esan zitzaizkien kideei nola Gipuzkoako Gobernu Zibilak 1951ko apirilaren 26an Txantxangorri Elkartea sortzeko baimena eman zuen, Elkartearen arauak ere adostu ziren, eta orain Txantxangorriko Elkarte legaleko Lehendakaria Rafael Piera Bayona Jauna izango da.

Urte honetan zehar amuarrainkumeak botatzen dira ibaira eta herriko mendiak birpopulatzeko eper talde bat lortzen da, Izen-Eder baserrian gorde ziren bertarako girora moldatu arte.

1952ko otsailaren 16an, eperrak, eraztunak jarri ondoren Zuzendari eta Agintarien aurrean askatu ziren.

Aurtengo herriko festetan Plater Tiraketa bat jarri zen festetako egitarau barruan, saria dirutan, 5.000 pezetaz ornitu zuten.

Eraberean Udalari urteko 200 pezeta ordainduz Epele, Urzala eta Aparrain Sarobe, erabilgarritasun publikoko mendiak alokatzen zaizkio 10 urterako.

1953 urtean lehen uso-tiraketa antolatu zen bertan akats batzuk izan ziren eta bazkieen Urteko Biltzarraren ondoren, aurrerago egingo diren tiraketetan arazorik izan ez dadin hau arautzea erabakitzen da. Batzar honetan, berriro ere Piera Jauna buru duen Zuzendaritza Batzorde berri bat aukeratzen da; Lehendakariordea, Txantxangorriren ibilbidean Zuzendaritza Batzorde barruan beti karguak izan dituen Azpiazu Jauna da.

1954 urtean zehar ekintza guztiak Txantxangorriin bilduko dituen lokal sozial bat prestatzeko ideia sortu zen; gai hau aztertzeko batzorde bat sortuz. Halaber, bazkide guztiak ehiz garaia hastean irteera elkartuak egiteko proposamena egin dute.

Ehizera joateko irteera hurrengo galeper garaian antolatzen da, 25 ehiztari joanez; Elkarteak guztira 4.000 pezeta eman zituen hauen gastuetarako.

1955 urtean C.D.H.ri ordaintzen zaion Bazkide Industrial kuota 1.200 pezetatik 300 pezetara jaitsitzea erabakitzen da.

1956 urtean Lokal Sozial bat alokatzeko aukera batzuk aztertzen dira, zehazki Nafarroa kalean eta Elkano kaleko lehenengo zenbakikoa jo dira begiz, azkenik biak baztertu dira; baina kideek Zuzendaritzari lokala aurkitzeko egin behar diren gestioak aurrera eramateko baimena ematen die eta diru sozialeko 15.000 pezeta lokala alokatzeko kasua gertatuko balitz ere horretarako zuzentzen da.

Urte honetako Batzarrean Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzen da, Lehendakaria Manuel Azpiazu Salaberria Jauna delarik.

Urte hau igaro ondoren, **1957** urtean Kardaberaz kaleko Deportibo Tarbernako lokalak erabiltzen ditu Zuzendaritza Batzordeak bere bilerak egiteko.

Lokala alokatzearen gaia aurrera doa eta negoziaketen ondoren Elkano kaleko lehenengo zenbakian dagoen lokala hileko 1.400 pezetetan alokatzea zehazten da.

Gastu hauei aurre egitearren kide kopurua handitzea erabakitzen da, Txantxangorriko Solaseko Atala sortzeko erabakia hartuz, Bazkide berri hauek ez dituzte nahitaez Txantxangorrik bultzatutako kirol ekintzak egin behar; atal honek gehienez 75 pertsona izan ditzake. Halaber, Solaseko Taldea Txantxangorriko ehiza eta arrantza taldean nola elkartu eztabaidatzen da.

Lokalari dagokionean, lokalak behar dituen konponketetaz, horniduraz, kudeaketaz ... arduratuko den batzorde bat izendatzen da.

Urte honetan zehar Solaseko taldeak gestio ugari egin ditu Oarso kaleko lehenengo zenbakian dagoen lokala jabetzan lortzeko. Hau finantzatzeko 200.000 pezetako hipoteka eskatzea eta Solaseko taldeko kide bakoitzak 1.500 pezeta jartzea proposatu zen; honela lokala erostearen eta egokitzearen lanak ordaindu ahal izateko.

Solaserako Taldeak, Txantxangorriren estatutuetan beraiek ere han egon behar dutela, nabarmentzen du.

Lokalaren erosketa hain urbil ikusten denez, Elkano kaleko lehenengo zenbakiko lokalaren jabeekin (Rezola), irailaren 1etik aurrera kontratua deuseztea erabakitzen da.

1958ko Batzar Orokorrean gai desberdinak landu arren, ehizera egiten diren taldeko irteerak eta ehizerako herriko lurrak erabiltzearen gaiak sortu zituzten kritikak izan ziren azpimarragarrienak.

Urte honen barruan eta **1959ko** otsailean egindako Batzar Orokor Arruntean emandako datuek erakusten duten bezala Solaserako

taldearen eta Txantxangorriren adostasunik ezak zatiketa ekarri zuen, horrela esan badaiteke behintzat.

Talde horrek Oarso kaleko lehenengo zenbakiko lokala erosi ondoren Elur Txori Elkarte sortu zuen.

Hori dena dela eta, Txantxangorri berriro ere Lokal Sozialik gabe geratzen da.

Urte honetan, kontrapasa garaian ehizerako arauak behin betirako erregulatuko dituen ehizeko lege berria sortu da.

Urte honetan bertan Florentino Monfor Palacin Jauna Lehendakari izango duen Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzen da.

Zuzendaritza Batzorde berri honek bertako bazkide diren ehiztari eta arrantzaleek meza entzuteko aukera izan dezaten, igandero goizeko 5etan meza jar dezaten, eskaera bat egiten dio Bikario Jaunari.

Eraberean, Elkarte usapala pasatzen den postuen kudeaketa egiten hasten da.

1960 urtean zehar, herriko Zinema Lokalean egin zen Batzarrean postuak nola esleitu eta, ehizera eta arrantzara egiten diren irteera kolektiboak nola egin behar diren zehaztu zen, aurreko urteetan bezala ehizeko eta arrantzako dokumentalekin batera gaurkotasuneko gaien NO-DO bat eman zen.

Zuzendaritza Batzorde Berriak Irizar tabernako Jangela lortu du bere bilerak egiteko.

1961 urtean zehar, bazkide bakoitzari eman beharreko kartutxu kopurua 100ean jartzen da eta bakoitzeko obaria 0,25 pezeta da. Palentziako inguruan ehiz-barruti bat lortzeko aukera begiratzen da. Plater Tiraketarako makina bat erosten da 2.555 pezeta ordainduz.

1962 urtean egindako Batzar Orokorrean bertaratuen artean egindako zozketa azpimarratu behar da; irabazleak Tomas Imaz Jauna eta Juan Santa Cruz Jauna izan zirelarik. Bakoitzak egun bat arrantzan eta bestea ehizean pasa zituzten Txantxangorriren kontura. Urte honetan bertan eta Fagollagako hondakindegia isurkinak direla eta alde honetako arrain espezieko animalia ugariaren hilketak gertatzen da.

Lokal Sozialarekin bueltaka jarraituz Ijurko Jaunari 315.000 pezeta ordainduz lokala erostea edota hileko 2.500 pezeta ordaintzearen trukean lokal bat alokatzearen aukerak aztertzen dira.

Urte honetatik aurrera Azpiazu Jauna bitarteko delarik, Elkarte ehizerako agiriak eta baimenak lortzeaz arduratzen da.

Elkarteko lehenengo Mus Txapelketa ospatzen da.

1963 ean Venancio Diez Arana Jauna Txantxangorriko Lehendakari bezala aukeratzen dute, urte honetan antolatu zen lehenengo Itsasoko Arrantza Txapelketa.

Polikloro lantegiak Potasio Zianuroa Olazar errekarara isuri duelako, amuarrain eta beste espezie batzuetan ere hilketak handia ematen da,

isurketa hau dela eta egiten den salaketa autoridadeen eskuetan jartzen da. Beste horrelako moduko eraso bat Txantxangorriko bi kideek egin zuten, eta Elkartetik berehala kanporatuak izan ziren.

Tiroko zelaia Santa Barbaran jartzearen bideragarritasuna aztertzen hasi ziren 1964 urtean.

Urte honetan bertan Zuzendaritza Batzordeari Itsasoko arrantzaren batzordekidetza gehitze zaio.

1965 urtean zehar Kardaberaz kalean lokal bat alokatzea pentsatzen da baina gehienek lokala erosteko nahia dutenez aurreko bidea gutxietsi egiten da.

Herriko festetako Plater Tiraketa "Zigulio"n antolatzen da, Santa Barbararako behin-betiko baimenak etorri arte.

Orain jasotzen da Poliklorori errekarra botatako isurkinen errua egotzten dion epaia; horregatik 120.000 pezetako isuna ordaindu beharko du eta bere ordezkariak hilabete eta egun bateko atxiloketa zigorra izango du.

Plater Tiraketarako 3 makina erosten dira. Horretarako 185.000 pezetako laguntza eskatzen da eta Elkartek 40.000 zuzendu ditu gastu horretarako.

1966an eta **1967an** Elkarteko iharduerekin jarraitzen da, Plater Tiraketako Zelaia bukatzearen gestio ugari egiten dira eta Carlos Miglaccio Martines izendatzen da Lehendakari.

1968an Txantxangorriko estatutu berriak onartu ziren.

Venancio Diaz Jaunak Urbieta kalean Lokal bat erostearen porposamena mahai gainean jartzen du (oraingo Elkarteko lokala da), lehenik erosketa egiteko konpromezua onesten da eta gero 1.100.000 pezetetan lokala erostea ere bai.

Lokala erosteko eta lokal berria prestatzeko behar den dirua lortzearen 1.000 pezetako bonuak jaulki dira eta hasieran 900.000 pezetako mailegua ere eskatu zitzaion Gipuzkoako Kutzari.

Bonuen kargu egiten diren kideak Babesleak diren Kirol Bazkide izatera pasako dira, une honetatik aurrera kiroletakoen eta babesleen arteko desberdintasuna emanez.

Hau izango da azkeneko aldiz ehizera eta arrantzara egiten diren irteera elkartuak dirulaguntza jasoko dutena.

1968eko ekainaren 23an, Manuel Ortega Alberro Jauna Lehendakari zelarrik modu ospetsu batean inauguratu zen Lokal Soziala.

Halaber, Tiro eremuko konponketak urte honetan bukatzen dira.

Berriro ere 5.000 pezetaren bonoak jaurkitzen dira, gainera Gipuzkoako Kutzari 300.000 pezetako mailegua eskatzen zaio lokalerako behar diren gauzak erosteko.

Azaroaren 17an lehenengo elkartasun afaria prestatzen da, Lokal Sozialean.

Lapazaran Jaunari Elkartearren urrezko entseina ematen zaio, Lokal Sozialean lanak egiteko garaian erakutsi duen eskuzabaltasuna dela eta.

1969ean Elkartearren barruko arauak onetsi ziren.

Urte honetako Batzar Orokorrean Lokal Sozialean emakumeen sarrera bai a la ez eztabaidatzen da, eztabida askoren ondoren proposamenari ezezkoa eman zitzaion.

Herriko festen barruan gauza berri bat bezala lehen "Karabina Tiraketa" lehiaketa antolatu zen.

Pedro Orbegozoko langileekin bat egiteko sinatu zen papera Txantxangorrik ere sinatu zuen, eta hori dela eta, Hernaniko gainerako Elkarteei bezala; 20.000 pezetako isuna jarri zieten, eta hiru hilabete eta egun batez itxi beharrarena ere bai, Espainiako agintariek.

Isuna barkatzea Ehizeko Espainiako Federazioko Jaime de Foxa zela medio lortu zen, arrazoi honengatik, arazo berbera zuten herriko beste elkarteekin liskarrak sortu ziren.

1970ean Manuel Adarraga Elizaran Jaunari Elkarteko urrezko entseina ematen zaio.

Zuzendaritza Batzordearen aukeraketa dela eta, Lehendakaritza Antonio Tomasena Erregenaren eskuetan geratzen da.

Berriro ere, jai egunetan emakumeak sartu daitezken a la ez, eztabaida sortzen da, baina Bazkideen gehiengoak ezezkoa eman zuen.

Elkartearren Ohorezko liburua ezartzen da. Rosario Salaberria Jauna Ohorezko Kide bezala izendatzen da Urumea bailan, gure Elkartearren alde, egin duen lanagatik.

Miguel Genua Kirol Bazkideari lokaleko giltza erabiltzeko baimena ematen zaio, bertan egin dituen lanen esker ona agertzearen.

1971 urtean Venancio Diez Arana Jaunari urrezko entseina ematen zaio.

Urte horretako San Juanetan, Txantxangorriko ordezkaria zen M^a Jesus Garayar izendatzu zuten festetako erregin bezala.

Denak ez ziren albiste onak, udalak 19.000 pezetetako zerga kobratu nahi zigun Kasino eta Solaseko Elkarre zerga moduan; horrekin ados ez geundenez Ehizeko Federakuntza Nazionalaren aholkua eskatzen da.

Ehizerako postuak dauden lur sailen jabeekin afaria ezartzen da.

1972 urtean Txantxangorri eta Txatarra taldearen arteko futbol partidua antolatzen da Antonio Usarraga Jaunari laguntzeko dirua biltzeko asmoz, gure ordezkariak irabazi zuten partidua.

Juan Olano Fuendazioak antolatutako ekintzen barruan Felix Rodriguez de la Fuente Jaun ezaguna ekartzea lortzen dugu, Aitor

zineman solasaldi bat egin zen eta ondoren Txantxangorriin antolatu zen afaria, ekitaldia oso arrakastatsua izan zen. Pidal eta Orbegozo Jaunei omenaldi bat egin zaie.

1973an Manuel Eraunzetamurgil Jauna hil zen ehiz istripu baten ondorioz, ezagunen artean eta Txantxangorriko kideen artean tristura handia sortuz.

Ez gara gogoratzen diru eskasia zegoen ala ez, baina **1974** urtean Elkartean lapurreta egin zuten eta bertatik 9.000 pezeta lapurtu zituzten.

Urte honekin batera Zuzendaritza aldaketa etorri zen, Imanol Larretxea Goñi izendatu zen Lehendakari.

5 plater-jaurtitzaille berri erosten dira eta berriro ere Juan Olano Fundazioarekin batera aste Mikologiko bat antolatzen da.

"Pasa"ko garaia bukatu ondoren, ehiz gaietan kazetari ezaguna den Arizala Jaunaren (Txus Perdigonon) ohorez omenaldi bat antolatzen da.

Angel Landaribar eta Jose Etxarri Txantxangorriren izenean aurkeztu ziren kideek, Hernanin egin zen lehenengo Txapelketa Gastronomikoa irabazi zuten.

1975 urtea badoa eta Gipuzkoako Arrantza Federakuntzak, Luis Salillas Kideari jaurtiketa arrantzaren sustapenaren alde egin duenagatik garaikur bat eman dio.

Lokal Sozialeko ke erauzgailuen sisteman hobetze lanak egiten dira.

Berriro ere "besteena berea dutenek" gure eraikuntzak ikustera etorri ondoren, oraingoan Santa Barbara Plater Tiraketako Zelaiari tokatu zitzaion, beraien ikustaldia guri 8.000 pezeta baino gehiago kostatu zaigu.

Hurrengo urtean, hau da **1976an**, lehenengo eta behin bakarrik gertatu den kontzientzi eragosle kasu bat eman zen Txantxangorri barruan; kide batek Elkartean baja eman nahi zuela arrazoi erlijiosoak zirela medio, eta berak jarri zituen diruak bueltatzeko eskatu zuen.

Gipuzkoako Arrantzako Federakuntzak Elkartea saritzen du, oraingoan Paco Gorosperen bidez, urte honetako arrantza ordezkari onenaren garaikurra emanez.

Urte honetan, Bazkideek Antonio Tomasena Erregerenan jarri dute berriro beraien ustea, berriz ere Lehendakari izendatua izango da.

Felix Rodriguez de la Fuente Jauna Elkartera etorri zen berriro ere, oraingoan, Naturaren 2. ihardunaldiko ekitaldiak direla eta.

Elkartea hasi berria den mugimendu ekologistari atxikiz, naturaren alde lan egiteko komisioko bat sortzen du, ingurua zaintzeko asmoz, normala denez ehiztarien ikusbegitik begiratuta. Lehen ekitaldia Ereñozun egin behar zuten txerritegi baten aurka lan egitea izan zen, handik sortutako isurkinak errekan sortu ditzaketan arazoei aurre egiteko.

Urtero egiten diren ekintzetan azpimarratzekoa Udalarekin batera Isidro Ansorenari omenaldia antolatzen laguntzen da, eraberean, Elkartea Harri-burnik atera duen paperarekin bat egiten da; han Hernanin azkenaldi honetan egin diren atxiloketak salatzen dira.

1977 urtean Udalarari Leokan "Amuarrain kumeak hazteko Udaleko Laborategi Ictiologiko" bat sortzeko baimena eskatzen zaio, baina izenak bakarrik ere asko beldurtu zituela uste dugu. Badirudi garai honetan egoera ekonomikoa ez zela oso arrakastatsua, zeren eta etxeko teilatuan egin ziren konponketak ordaintzeko Elkarteari zegokion zatia ordaindu ahal izateko Gipuzkoako Kutxari 200.000 pezetako mailegua eskatu zitzaion, 5 urtetan amortizatzeko, diru kopuru hau Bazkide diren Antonio Tomasena Erregerena eta Jose Antonio Landaribar Jaunek pertsonalki bermatu behar izan zuten.

Kirolaldetik gauzak hobeto zihoazen, Bazkidea den Jesus Sanchez Jaunak amuarrain arrantzako txapelketan parte hartzen du, Txantxangorritik aurkeztu den lehenengo arrantzalea izanik.

Politikan ere berrikuntzak datoz, Elkarreak bere lehenengo ikurriña izango du, hau Nekane Sistiaga andereñoak emandakoa da, eraberean garai honetan beste Elkarrekin bat eginez Askatasunaren Ibilaldian parte hartzen dugu.

Garai onak hasi dira, festetako giro onari arrakasta ekonomikoa ere gehitu behar zaio, 150.000 pezetako irabaziak lortu baiditugu, marka guztiak hautsiz.

Jose Sanchez arrantzaleak bolada onean jarraitzen du eta **1978** urtean, bere erregulartasuna dela eta, urrezko domina jaso zuen; eraberean Jose Antonio Cuestak, ordezkari onenaren garaikur berezia jaso zuen.

Festetan Elorrabin zoritxarreko istripua gertatu zen, denok ezagutzen ditugun ondorio latzekin, istripu honek festetako ekintza batzuen etetea ekarri zuen eta denon artean halako giro triste bat utzi zuen.

1979 urtera iritsi gara, Txantxangorriren alde lan asko egin duen Rafael Piera Baiona Bazkidea zendu da; garai honetan Zuzendaritza Batzordea festetan egingo den Gau-pasa batek eta berak ekarri ditzaken ondorioak arduratzen du.

Tiro eremuko instalazioak Fono-Pull bat jarriz hobetzen dira, neurri hau oso gustora hartu dute Tiroko zaletuak.

1980 urteko lehenengo hilabetetan kale Nagusiko 35. zenbakiaren beheko solairuan dagoen lokaleko jabea den Azurmendi Jaunak, behe hau eskaintzen dio Elkarteari, Bazkide guztiei ematen zaie eskaintza honen berri.

Vicente Arizeta Usain Jauna da Zuzendaritza Batzorde berriko Lehendakari.

Omenaldi bat antolatzen da, Martin Zabaleta mendizalearen ohorez, honek Everestera egin zuen bidaian lortutako arrakastagatik eta Juan

Etxeberria Balerdi hernaniarraren ohorez, Europako Usapal Tiroko Txapelketa lortzeagatik.

Lorategia hobeto aprobetxatzeko asmoz; udaran ohizkoa den eguraldi txarra egin arren, hau estaliko duen olan bat jarri zen.

Urte honetan festetan, gauzez Plater Tiraketa saio bat ospatu zen, gainera arrakasta handia lortu zuen.

Arzak sukaldari ospetsuak sukaldaritza erakusketa bat egin zuen.

1981 urtean Felix Altuna Jaunaren atxiloketa dela eta Elkartek, hernaniar honen askatasuna eskatzeko herriko talde batzuk atera duten agiriarekin bat egiten du.

Batzar Orokorrean estatutu berriak onartzen dira eta baita Elkartearen barruko arauak ere.

Hurrengo urtean, **1982ean** hain zuzen ere, San Humbertoren afarira herriko beste Elkartek gonbidatzen dira, afari hau gure arteko harremanak estutu eta denori dagozkigun gaiak lantzeko aprobetxatzen da.

Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaritza Enrique Esteban de la Fuente Jaunari dagokio.

Negoziaketa luze baten ondoren, Azurmendi Jaunak luzatutako eskaintza onartzen da, hau da, erantsitako lokala 2.000.000 pezetetan erosi zen. Erosketa hau aurrera eramateko aukera asko begiratu ondoren kide bakoitzak 15.000 pezeta jartzea erabaki zen. Kide guztiek jarri zuten diru kopuru hori, bi izan ezik, azkenean bi kide hauei Txantxangorri Elkartetik baja eman zitzaion.

1983 urtean, ehizeko taldeak Aparrain aldean faisai hazkuntzarako babesleku itxi bat egin zuen, bertan faisai bikote batzuk jarri ere jarri zituzten, baina ez zuen arrakastarik lortu "basapiztiak" zirela medio; baina zenbak ankeko piztiak ziren ez zen behin ere jakin.

Elkartek erosi berria duen Lokalaren ondoan denda daukan Zerain Jaunak, Lokalaren zati bat erosteko proposamena luzatu zuen, prezio onean bainera, baina Bazkideek proposamen honeri ezezkoan eman zioten.

Urte honetan Fagor markako sukalde berri bat erosi zen; Bizkaiko Bankoan bonba batek eztanda egin ondoren gure Lokal Sozialak kalte batzuk izan ditu.

1984 urtean goiko lokalean jatetxea jartzeko asmoz, Urbieta kaletik sarrera egiteko eskaera ez zen onartu.

Sagardo Txapelketa bat antolatzen du lehenengo aldiz Txantxangorrik, dena aurrera eramateko antolakuntzaz Ramon Imaz eta Imanol Larretxea Bazkideak arduratu ziren, 14 sagardogilek hartu zuten parte eta Oiarbidekoak irabazi zuten lehiaketa.

1985 urtean berriro ere, igande eta jaiegunetan emakumeei Lokalera sartzen uztearen proposamenari, erabateko ezezkoa eman zitzaion.

1986 urtetik aurrera Ramon Imaz Oiarzabal Jaunak hartu zuen Lehendakaritza.

Urte honetako ihauterietan "paisanoz jantzitako indibiduo" batzuk Elkarteko atean jarrita zegoen ikurriña ostu zuten, Bazkideen artean oso giro txarra sortuz.

Komunak txukuntzeko konponketak egiten dira, beste komun berri bat ere egiten da "emakumeena" esaten zaiona, obra hauek denak ordaintzeko 700.000 pezeta inguru gastatu ziren.

1987 urtean "Cervezas el Leon" lantegiaren aurka salaketa bat jarri zen, honek errekarra botatako isurkinak amuarraian askoren heriotza sortarazi baitzuen.

Ekologista talde bat ere salatzen da Hernani eta Gipuzkoa aldean ehizerako postuak suntsitu edo erretzeagatik.

Klub Atletiko Urumearekin elkarlanean aritu gara M^a Luisa Irizar korrikalariari omenaldi bat prestatzeko antolaketetan.

Lehenengo aldiz parte hartzen da Soziedade arteko mus txapelketan. Zuzendaritza Batzordearen aldaketa dela eta, Juan Mauricio Lopez de Zubiria Fransoy hautatzen da Lehendakari **1988.** urtean.

Gauza berezi batzuk erosten dira, esate baterako izotza egiteko makina, telebista bat, musika kate bat, hozteko makina berri bat eta ordenadore bat erosteko proposamena ere luzatzen da.

Urte honetatik aurrera, orain arte Azpiazu sendiak eramaten zituzten izapideak agiriak eta baimenak lortzeko, Zuzendaritza Bazordeak bideratuko ditu zuzenean. Elkartearen izena Eusko Jaurilaritzako Solaserako Elkarteen erregistroan jartzen da.

Hain tradizionala den Axeridantzan Axeriaren partehartzea sartu zen, hau Axeriz jantzitako dantzari bat da, arrakasta handia lortu zuelarik.

1989 urtean Larregainen postu lerro bat irekitzen da, eta Elkartek Tiro Olinpikoko Gipuzkoako Federakuntzan izena ematen du.

Bazkidea den Manuel Azpiazu Jaunari omenaldi bat egiten zaio, Txantxangorriin egin dituen lan guztiengatik esker ona adierazteko.

1990 urtean bi urtetik behin derrigorrezkoa denez Zuzendaritza Batzordea aldatzen da, Lehendakaritza Francisco Barreiro Tome Jaunari dagokio.

1991 urtean Clubaren kontuetan irregulartasunak agertzen dira, ekintza batzuen ondoren arazo hau, bi Bazkide zigortu eta beste bat kanporatu ondoren bukatutzat ematen da.

Elkarteko ohizko iharduerekin jarraitzen da, **1992** urtera iristen gara, urte honetan Santa Barbarako gotorlekuan dagoen lokal bat erabiltzen uzteko eskaria luzatzen zaio Udalari.

Elkartearantz ez dira garai onak eta kide batzuen ekintzen ondoren, Bazkide batzuk zigortuak suertatzen dira, eta garai hauei bermearekin aurre egiteko Lehendakari ohi guztiei deitzen zaie galdeketa konsultibo moduko komisio bat sortzeko Zuzendaritza Batzarrari laguntzeko.

Urte honetako batzarrean berriro ere emakumea Lokal Sozialesan sartu daitekeen ala ez eztabaidatzen da, aspaldiko urtetan bezala, oraingoan ere ezezkoa ematen zaio emakumeen sarrerari.

Juan Manuel Azpiazu Goñi Jauna atera da Lehendakari bezala Zuzendaritza Batzar berriaren aukeraketetan.

Elkarteko iharduerekin jarraitzen da garai honetan **1994** urtea iritsi arte, berriro ere Zuzendaritza Batzarra aukeratzeko garaia da eta Luis Garayar Orayen Jauna aukeratuko da Elkarteko Lehendakari bezala.

Ke erauzketa sistema berri bat eta sukaldean suburu berri bat ere jartzen dira, horrela kideek urte askotan erasan dituzten arazoak konponduz.

Santa Barbarako lokaleko txukuntze lanak bukatuak, ofizialki inauguratu ondoren, tiratzaileak erabiltzen hasten dira.

Azkeneko hilabetetan liskar batzuk sortu dira, azkenean **1995** urtean elkartearen giro ona mantentzen ez zuten bi kide kanporatu zirelarik.

Arazo honek eta beste horrelako batzuk Zuzendaritza Batzordearen dimisioa ekarri zuten.

1996 urteko Batzarrean Kudeaketa-Batzar bat sortu zen, Lehendakari berri bat aukeratu arte lanean arituko zena.

Lehengoa dena gutxi balitz bezala Muxarra Elkartearekin ere liskarretan sartzen gara, Asketako postuen zozketak direla eta.

Kudeaketa-batzordearen gestioa bukatu ondoren, Lehendakari berri bat aukeratzeko lanetan hasten da, oraingoan Jose Martin Tijero Lasa Jaunari dagokio kargua.

Aginte honetan, Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen bezala, gaur egungo Estatutoak onartu dira; Txantxangorri Elkartearen hemendik aurrera "Txantxangorri Ehiza eta Arrantzarako" Kirol Elkartearen izango da. Bazkideak egunean egon daitezten, Zuzendaritza Batzordeak bileretan egin diren akten laburpen bat iragarki Taulan jartzen hasten da, Santa Barbarako lokalaren erabilera ere arautzen da. Elkartearen atxilotuta daudenen artean zigorraren 3/4ak bete dituztenak kartzelatik atera ditzaten "Txemari Hernanira" kanpainari elkartasuna adierazten dio.

Garbitasuna egiteaz arduratzen zen anderea, Angelita Zapiain, erretiratu egin zen, emakume honek ezin hobeto zaindu zituen Txantxangorriko kideak urte askotan zehar.

1977 urtean Lehendakari izandako Ramon Imaz Oiarzabal Jauna hil zen.

Urte honetan bertan Elkartearen Arautegi berria onartu zen eta gatazka askoren ondoren emakumeen sarreraren gaia araupetzen da,

txori abeslarien erakusketa bat antolatzen da, honek nahiko arrakasta ona jaso du.

1998 urte hasieran Vicente Goikoetxea Balda Jaunak hartzen du Lehendakariaren kargua.

Estatutuen eta Araudiaren ezarpena dela eta Babesle Bazkideen Zor-Tituluen araudia onartzen da. Lorategirako toka eta igel joku batzuk erosten dira.

Garai honetan hasten dira Tiro eremuko arazoak. Gobernuko Zuzendaritzaordeak espediente zigortzaile bat hasiko du gure aurka, gero artxibatua izan arren; hau dena partikular batek jarri zuen salaketagatik gertatu da, honek bertan sortzen diren soinuen eta segurtasunik ezagatik egin zuen protesta.

Euskal Herri osoan berria den era batera egiten dira postuen zozketak, hau dena informatikari esker gertatzen da.

1999 urtean eta lehen esandako espedientean hasitako prozesu horren bukaera bezala, Santa Barbarako Tiroko Eremuaren, Guardia Zibilen Zuzendaritza Orokorrek emandako homologazioa lortzen da.

Arau berriak erabiliz bazkide bat kanporatua izan da.

Tiroko Eremua, Txapelketa Ofizialetarako, urte beterako itxi dute Tiroko Federazioak hasiera eman dion espediente bat dela medio.

Onoko lokala erosi zenetik urte batzuetara, hau biltegi bezala ibili arren, hau egokitzeko lanak hasten dira, baita Lokal Soziala hobetzekoak ere. Hau dena konpontzearen kostua 15.000.000 pezetakoa da, diru kopuru honetatik 9.000.000 kreditu bat eskatuz ordaintzen dira gainerantzekoak Elkarteak jartzen ditu; lanak bukatu ondoren, irailaren 27an lokala inauguratzeko afari bat antolatu zen, afarira bertaratuen artean herriko agintariak eta gonbidatu ugari ere etorri ziren.

Berriro ere, Elkartea, "Hernaniruntz" presoek eskubideen alde egiten ari den gizarte mugimenduaren kanpainarekin elkartu ginen.

Urte honek eskualdeko arrantzale guztientzak poz handia ekarri du, Luis Arza Jaunak joan den 50 urtean Urumea ibaian harrapatu den lehenengo izokina arrantzatu baitu.

Elkartean 1999an egindako urteko Batzarrean Iñigo Diez Leoz hautatu zen lehendakari posturako.

Maiatzaren 9an antolatu zen itsas arrantzako Lehen Lehiaketa. Txantxangorri Elkarteak antolatu zuen Donostiako uretan, eta Ernesto Iturriza bazkide zendua omendu zuten.

Uztailean salaketa jarri zitzaion Zikuñagako enpresa bati, Ibaitek ura ateratzen zuelako bonba baten bidez, eta Konfederazioak 2.000 pezetako isuna jarri zion, ura baimenik gabe ateratzen zuelako.

Urriaren 1ean Elkartearen lokal berria inauguratu zuen Jose Maria Maidagan apaizak. Berritze lanak 15 milioiko gastua izan zuen. Inaugurazio ekitaldian Luis Salillasi oroigarri bat eman zitzaion, berritze lanetan egin zuen koordinazio lanagatik. Ospakizun honen

harira Juan Delibes de Castrok ehizari buruzko hitzaldia eman zuen eta 125 lagun bildu ziren.

Abenduan txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa soziala antolatu zen. Irabazlea Arkaitz Santa Kruz izan zen.

2000 urteko uztailaren 23an Luis Maria Zerain bazkideak Minifoso Txapelketako Kopa eskuratu zuen, eta Juan Otaegi, berriz, txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa sozialean garaile izan zen.

2001eko martxoaren 15ean lapurreta egin zuten Klubaren bulegoetatik. Kalteak 600.000 pezeta ingurukoak izan ziren. Martxoan, Urumean izokin ugari sartu zela eta (Elorrabiko tranpan urtean 100-200 inguruan zebiltzan), Foru Aldundiari eta Arrantzako Federazioari Urumean izokinak harrapatzeko proposamena aurkeztu zitzaion. Proposamenean arrantzarako egokienak izan zitezkeen lekuen berri ematen zen eta hogeita hamarren bat arrantzalek sinatuta bideratu zen.

Apirilaren 26an Klubaren 50. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zen apirilaren 22tik 30era bitartean. Besteak beste, arrantza txapelketak: itsasokoa, amuarrainen Soziala, Euliduna eta Infantila. Plater tiraketa eta colombaire tiraketa ere bai. Uso mezulariei buruzko erakusketa egin zen lorategian, pins-ak argitaratu ziren eta baita ospakizun honen berri ematen zuen aldizkaria ere. Nabarmenezkoa da Juan Delibes de Castro ehizari, arrantzale eta naturalistak eskaini zuen hitzaldi-tertua. Aretoa jendez beteta zegoela, diapositiben laguntzarekin, eskaini zuen hitzaldia eta mokadutxo baten inguruan egin zuten hitz-aspertua. Hitzaldia amaituta, herriko sagardotegi batera joan ziren ehiza eta arrantzaz hitz egiten jarraitzeko.

Ospakizunen amaiera gisa, hilaren 30ean afari bat antolatu zen bazkide fundatzaileak (Miguel Jose Olo, Jose Luis Medina, Miguel Iraola eta Julian Isasa) omentzeko.

Urte horretako Sanjoanetan bandera igo eta jaisteaz Txantxangorri Elkartea (50. urteurrena zuela eta) eta Santa Barbara txaranga (25. urteurrena zuela eta) arduratu ziren. Gure Elkartearen ordezkari gisa Agustin Urretabizkaia aritu zen.

Abenduaren 16an eta 23an Epelerrekan eta Usokorrekan txakurrez lagundutako ehiza txikiaren 23. Lehiaketa antolatu zen. Europa osoan egin zuen eguraldiak lagunduta, lehiaketan zehar 13 oilagor ehizatu ahal izan ziren, 9 lehen egunean eta 4 bigarrenean. Lehiaketako irabazle Iñaki Loiarde izan zen.

Elkartearen **2002ko** martxoaren 10eko Batzarrean lehendakari berria aukeratu zuten: Manuel Loinaz Guerra.

Urte honetan Gipuzkoa mailako Minifoso txapelketako kopa Cristóbal Barragán bazkideak eskuratu zuen, eta titulua Elkarteari eman zion.

Abenduan txakurrez lagundutako ehiza txikiaren 24. Lehiaketa antolatu zen eta berriro ere Iñaki Loiarde izan zen txapeldun.

2003ko abenduan txakurrez lagundutako ehiza txikiaren 25. Lehiaketa antolatu zen, eta hirugarren urtez segidan Iñaki Loiartek eskuratu zuen txapela.

2004ko martxoaren 14an egin zen Batzarra eta bertan, Juan Delibes Castro Ohorezko Bazkide izendatzeko erabakia hartu zuten, Klubaren alde hainbeste lan egin izanaren ordainetan.

Batzar horretan bertan 45 bazkideri baja ematea erabaki zen. Arrazoa zen ez zutela kuotarik ordaintzen. Bestalde, lehendakartzarako hautagairik aurkeztu ez zenez, Batzarra apirilaren 4an beste bilera bat egitea erabaki zen. Ezohiko batzar honetan Jose Martin Tijero hautatu zuten lehendakari. Abuztuaren 7an arrain mordo bat agertu zen hilda Zikuñagako paper fabrikatik Karabelgo zubira bitartean. Hilda agertu ziren 4 izokin, itsas amuarrain bat eta ehunka amuarrain, ezkailu eta platuxa. Erakunde arduradunek ezer egiten ez zutela ikusita, Txantxangorri Elkarteak salaketa jarri zuen epaitegian, eta epaileak artxibatu egin zuen auzia, ezin izan zuelako atzeman gertaera haren erruduna. Eusko Jaurlaritzak ur laginak hartu zituen eta ondorioztatu zuen hilketa ez zela oxigeno faltagatik izan, baina ez zuen ondorioztatu ahal izan benetako arrazoa zein izan zen, horretarako nahitaezkoa delako arrain hil berria hartu eta izoztea, ondoren aztertzeko. Arrain haiek, ordea, denbora zeramaten akabatuta.

Abenduan ospatu zen txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa. Txapelduna Ibai Artola izan zen.

2005eko urtarrilean, Urumea ibaian, Gipuzkoako gainerako ibaien antzera, amuarrainak nabarmen gutxitzen ari zirela ikusita, Txantxangorri Elkarteak Hernaniko Urumea ibaiari buruzko txostena egin zuen Gipuzkoako Federazioko zuzendaritza berriari aurkezteko. Txosten horretan adierazten da uraren kalitatea hobetu den arren, ibaiaren emaria asko jaitsi dela eta herri barruko 14,5 kilometrotatik bostean bakarrik eusten zaiola emariari (gainerako kilometro guztietan zentralak baitaude), eta 2,3 kilometro debekurik gabeko eremu libreak direla.

Ehiza irteerak ere antolatzen dira Arabako faisai eta eper kotora, bazkideentzako diruz lagunduta. Oso arrakastatsuak direnez, hurrengo urteetan ere errepikatu egingo dira.

Oriamendiko ehiza postuetan 9 postu gehiago jartzen dira Altzea gainean.

Txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketan Juan Mari Ugalde suertatzen da txapeldun.

2006ko Batzarrak Juan Cruz Muñoz Marcos hautatu zuen lehendakari posturako. Elkartearen web orria prestatu zen (Txantxangorri.com)

kirol gai interesgarriez osatuta, eta txantxangorri@terra.es postaren bidez elkartearekiko komunikazioa erraztu zen.

Abenduan ospatu zen txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa eta berriro ere Juan Mari Ugaldek eraman zuen txapela.

2007an hainbat obra egin ziren lokalean, Jarduera Baimena lortu ahal izateko. Berritze lan horiek 80.000 eurokoak izan ziren.

Bestetik, diru kontuak eramateko, informatizatu egin zen gestioa.

Abenduan ospatu zen txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa eta, hirugarrenez, Juan Mari Ugaldek irabazi zuen.

2008an lokalaren Jarduera Baimena lortzeko Proiektua aurkeztu zitzaion Udalari.

Urteko Batzarrean ez zen lehendakaritzarako hautagairik aurkeztu eta, beraz, Juan Cruz Muñoak jarraitzen du lehendakari lanetan.

Abenduan ospatu zen txakurrez lagundutako ehiza txikiaren Lehiaketa. Irabazlea, Iñaki Loiarde izan zen.